

2024KO ABERRI EGUNEKO LABEN ADIERAZPENA

Estatu tresnak, politika burujabeak aldarrikatu ditu LABek Aberri Egunean Euskal Herriaren prozesu eratzailea eraldaketa sozialerako aukera eta bidea da

Euskal Herrian, 2024ko martxoaren 27an



LABentzat berezia da aurtengo Aberri Eguna, 2024 honetan gure 50. urtemuga ospatzen baitugu. Eta hain zuzen ere, bere sorrera zuzenki lotua dago Aberri Egunaren aldarri historiko nagusiarekin: Euskal Herriaren askapen nazionala.

LABen ikuspegitik askapen nazionala eta eraldaketa soziala eskutik doaz. Euskal Herriaren prozesu eratzaillea eraldaketa sozialerako aukera eta bidea da guretzat. Kapitalaren interesak erdigunean dituzten bi estatuetatik askatu eta bizitza erdigunean izango duen Euskal Errepublikak independentea sortzea da gure ipar-orratza.

50 urte hauek, argiekin nahiz itzalekin, oparoak izan dira ildo horretan. Beste indar sozial, sindikal eta politikoekin batera, Euskal Herria desagerrarazteko estrategia desberdinei aurre egin diegu. Tresna sozial, politiko eta instituzional propioak eratu ditugu eremu eremu, besteak beste eremu sindikalean.

Euskal Herria antolakuntza eta borroka sindikalerako esparru autonomo gisa eratu da (Hego Euskal Herrian) eta eratzten ari da (Ipar Euskal Herrian), bi estatuetaiko sindikalismoaren koordinada erabat desberdinetan. Agenda propioarekin aritu gara eta aritzen gara, Euskal Herria helburu eta abiapuntu. Langileen lan eta bizi baldintzen aldeko borrokatik abiatuta, aldaketa sozial eta aldaketa politikoak sustatu ditugu, sustatzen ari gara.

Aurrera begira, nazioarte mailako krisi ekologiko eta ekonomiko sistemikoari aurre egiteko, Euskal Herriak estatu tresnak behar ditu. Euskalduntze prozesuari, trantsizio energetikoari edota osasun eta zaintza sistemari dagokionez politika burujabeak behar ditugu. Arlo soziolaboralean ere, euskal langileen lan eta bizi baldintzak hobetzeko, lan harremanetarako eta babes sozialerako esparru propioa behar dugu.

Aukera politikoak egon badaude helburu horietan aurrera egiteko. Irlandatik hasi eta Euskal Herriraino ezker independentismoa indartzen ari da. Euskal Herriko hiru lurraldeetan estatusaren inguruko eztabaida irekitzen ari da. Eta era desberdinean bada ere, lurralde auzia eztabaidagai dago hala espainiar nola frantziar estatuan.

Ez dago ezer idatzita eta indar harremanen arabera determinatuko da etorkizuna. Borroka sindikal, sozial eta politikoen bidez egingo dugu aurrera Euskal Herriaren prozesu eratzaille eta eraldatzailean, Euskal Herria independente, sozialista eta feminista ortzimugan.

Lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparruranzko urratsak

Otsailaren 19an, euskal esparruaren aldeko nazio manifestazio historikoaren 30. urteurrenaren harira proposatutako erronkei heltzeko borondatea berresten du LABek:

1. EAEn zein Nafarroan Estatus Politikoak berritzea. Nazio aitortza egitearekin batera, lan eta bizi baldintzak bertan erabaki ahal izateko ahalmen legegilea bereganatuz.
2. Bien bitartean, hala EAEn nola Nafarroan, lan eta bizi baldintzak duintzeko, soldata eta pentsio arrakalak gainditzea, 1.400 euroko gutxieneko soldata eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzea.
3. Negoziazio kolektiborako marko propioa indartzea, estatalizazioari aurre egin eta bertako hitzarmenek lehentasun osoa izan dezaten eta hitzarmenik ez duten langile kolektiboek ere izan dezaten eurena, gure eremuan negoziatua.
4. Eremu publikoan bertako zerbitzu publikoak indartzea: azpiegiturak hobetu; plantillak handitu eta ratioan hobetu; erosmen ahalmena berreskuratu; zaintza bezalako eremuak publikatu eta zaintza sistema publiko komunitarioa sortu.
5. Hego Euskal Herriari dagokionez, gure lan eta bizi baldintzak hemen erabaki ahal izateko espainiar estatuak ezarritako mugak altxatzea (gutxieneko soldata ezartzeko, negoziazio kolektiboaren egituraketari dagokionez, eremu publiko langileen soldata eta birjartze tasak ezartzeko, Gizarte Segurantzaren transferentzia eskuratuz...).
6. Ipar Euskal Herriari dagokionez, instituzionalizazio prozesuan urrats berriak ematea eta, zehazki, negoziazio kolektiborako marko propioa eratztea.

Mobilizatorako deia

Aipatutako gogoeta oinarri hartuta, Aberri Egunaren harira antolatutako mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten du LABek:

- > Martxoaren 30ean Euskal Herria Baterak antolatutako ekitaldian
- > Martxoaren 31ean Ustaritzen eta Iruñean ezker independentismoak antolatutako ekintzetan.
- > Etxeetan nahiz bestelako esparruetan ikurriña eta ikur nazionalak ikusgarri egiteko deialdian.